

## **BB** **DIABETESA, ZAINDU OINAK**

Osakidetzak, Osasun Sailarekin batera, triptiko batzuk argitaratu ditu (botiketan eta osasun-zentroetan dituzu eskuragarri), diabetikoen oinen zainketari buruzkoak. Diabetesak, odol-hodietan eta nerbioetan alterazioak eragin ditzake, eta horren ondorioz, oinetako sentikortasuna galtzen da eta hanketan zirkulazio-arazoak gertatzen dira.

Triptiko horretan, diabetikoentzako gomendioak daude, esaterako, “erreparatu oinetan duzun lesio orori, arazo larriagorik gerta ez dadin”.

